



Begarako
Udala

OINEZBUSA ETA AUZOETAKO ESKOLA GARRAIOAREN DIRULAGUNTZA ZEHAZTEKO HITZARMENA

Bergaran, 2023ko martxoaren 24an

BILDU DIRA

Alde batetik,

GORKA ARTOLA ALBERDI jauna, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkari.

Bestetik,

AGURTZANE LOIDI LARRAÑAGA andrea, adinez nagusia, 15378076T zenbakidun NAN duena, eta Bergaran, Herrilagunak 1ean dagoen Telesforo Aranzadi Koop. ikastolako gerentea, Aranzadi ikastolaren izenean.

NAGORE MURUA URIA andrea, adinez nagusia, 15390732Y zenbakidun NAN duena, eta Bergaran, Bidekurutzeta kalean dagoen Mariaren Lagundia ikastolako zuzendaria, Mariaren Lagundia ikastolaren izenean.

Agurtzane Loidi Larrañaga andreak eta Nagore Murua Uria andreak, alkatearen aurrean adierazi ondoren haiek ordezkatzeko dituzten ikastolak ez daudela estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 legeak aurreikusitako debeku kasuetan, bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo adierazi dute.

ADIERAZPENAK

Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastolek batera antolatzen dute eskola garraioa ikastola bietako haurrentzat, eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik ez dute jasotzen horretarako diru-laguntzarik. Zerbitzu horren kudeaketa txandaka egiten dute bi ikastolen artean.

Ikastolek goizetako auzoetako garraiorako egoki ikusten dute Herribusa erabiltzea, herriko garraio publikoa sustatzeaz gain, ingurugiroari dagozkion arrazoiak ere kontuan dauzkatelako, trafiko astun gutxiago egongo da herrian. Horrez gain, mugikortasun jasangarriago batera heltzeko helburuarekin, Oinezbusa ekimena ere martxan jarriko dute goizetan, ikasleak ikastolara oinez joatea sustatuz. Udalak bat egiten du erabat Oinezbusa ekimena sustatzearekin eta ekimen honen goizetako gastuaren %75 bere gain hartuko du.



Begarako
Udala

Hori dela eta, ondorengo klausulak dituen hitzarmena adostu dute.

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Udalak lagunduko duen zerbitzua.

Udalak 2022 / 2023 ikasturteko Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastolen ikasleen Oinezbus zerbitzuaren zaintza diruz lagunduko du. Zerbitzu horren antolakuntza eta kudeaketa ikastolen ardurapekoa izango da. Hitzarmen honen gaineko edozein jakinarazpen Aranzadi ikastolari egingo zaio, eta hori eginda bi ikastolak jakinarazita daudela ulertuko da.

BIGARRENA: Dirulaguntzaren kopurua.

Begarako Udalak gehienez 9.902,83€-ko diru-laguntza emango du 2022/2023 ikasturteko eskola garraioaren zaintza zerbitzua diruz laguntzeko. Kopuru honetan sartuta daude:

-Oinezbuseko zaintza zerbitzua eramaten duen enpresaren gastuaren %75 eta gehienez ere 9.420,67€ ordainduko ditu kontzeptu honetarako udalak.

-Banakako kilometrajea: Eusko Jaurlaritzako 2020ko abenduaren 15eko hezkuntza sailburuaren agindua, eskola garraiorako banakako esleipenak arautzen dituen baldintzak ikusita: 482,16€

Horrez gain, udalak bere gain hartuko du ikastolekin adostutako Angiozar, Osintxu, Ubera eta San Juan auzoetako ikasleen garraioa. Hauek Herribusean jattsiko dira ikastolara eta ikasle hauen bidaiaren kostua udalak bere gain hartuko du. Zenbateko hori faktura bidez ordainduko zaio zuzenean Herribusa kudeatzen duen enpresari.

Auzo hauetakoak ez diren ikasleek, bakoitzak bere bidai txartela hartu eta ordaindu beharko du.

HIRUGARRENA: Ordainketa.

Dirulaguntza kobratzeko hitzarmen hau sinatu beharko da eta ondorengo dokumentazioa aurkeztu 2023ko irailaren 30a baino lehen:

- Dirulaguntza ordaintzeko eskabidea
- Balantzea
- Aurrekontuarekiko desbideratze esanguratsuak
- Gastuen zerrenda sailkatua
- Diru-sarreraren zerrenda sailkatua
- Oinez-busa egitasmoaren memoria
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo -laguntza batzuen zerrenda zehatza eta haien zenbatekoa eta jatorria. Dagokion dokumentazioa ere erantsi behar da. Bestelako laguntzarik ez bada jaso, hala adierazi behar da.
- Programatutako jardueren gaineko dokumentazio grafikoa (kartelak, eskuprogramak eta -orriak, banatutako idatzizko materiala, prentsa-oharrak eta abar.
- Izandako zaintza zerbitzuaren gastuen fakturen kopiak.



San Martin Plaza, 4 • 20570 Bergara
Tel.: 943 769 177 Fax: 943 769 177





Bergarako
Udala

Hitzarmena sinatu eta dokumentazioa aurkeztutakoan ordainketa bakarrean ordainduko du udalak diru-laguntza.

LAUGARRENA: iraupena.

Hitzarmen hau indarrean egongo da sinatzen denetik kontatzen hasita eta dirulaguntza justifikatu arte. Diru-laguntza hau borondatezkoa da eta aurrerantzean ezin izango da aurrekarizat hartu.

BOSTGARRENA: Ikastolen betebeharrak.

Aranzadi Ikastolak eta Mariaren Lagundia ikastolak eskola garraio zerbitzua indarrean dagoen legedia betez eskainiko dute, horretarako Eusko Jaurlaritzak ikastetxe publikoetako ikasleen garraiorako jartzen dituen baldintza berberak betetzeko konpromisoa hartu dute.

Ikastolek ez dituzte oztopatuko Udalak egin ditzakeen ikuskapenak.

SEIGARRENA: Dirulaguntzak bateratzea.

Udalak emango duen dirulaguntzaz gain, helburu bera duen beste edozein dirulaguntza ere jaso daiteke. Hala ere, dirulaguntzak ezin izango du jardueraren kostua baino altuagoa izan.

ZAZPIGARRENA: Dirulaguntza kopuruaren aldaketa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako bat aldatuko balitz, edo Udalaren dirulaguntzaz gain beste bat jasoko balitz, emandako kopurua alda daiteke.

ZORTZIGARRENA: Dirulaguntzen kentzea.

Dirulaguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, hauetakoren bat gertatuz gero:

- Ikastolek betebeharrak ez betetzea.
- Dirulaguntza beste helburu baterako erabiltzea.

BEDERATZIGARRENA: Aurreikusita ez dagoena.

Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa; lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; Bergarako udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorra; eta Bergarako aurrekontuetako udal araua.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzek konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean laukoiztuta sinatzen dute.

Alkatea

Gorka Artola

Telesforo Aranzadi

Koop. ikastola

ARANZADI

IKASTOLA

Agurtzane Loidi

San Martin plaza, 4 • 20570 Bergara

Tel.: 943 769 071 • Faxa: 943 769 177

Mariaren Lagundia
ikastola

Nagore Murua



**Bergarako
Udala**